Lehendakaria/Presidente
Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Kidea/Vocal
Mª Aranzazu Arana Learte

Idazkari-Kidea/Vocal Secretaria
María Yeregui Hernández

**Resolución 2/2020 ebazpena**
Recurso 2/2019 errekurtsoa

GIPUZKOAKO GIZARTE LANEKO DIPLOMADUNEN ETA GIZARTE LAGUNTZAILEEN ELKARGO OFIZIALAK kontratazioaren arloko errekurtso berezia jarri zuen esku hartze psikosozialeko eta gizarte-hezkuntza arloko esku hartze zerbitzuaren kudeaketa kontratatzeko baldintza teknikoen agiriaren aurka, zeina Diputatuen Kontseiluaren 2019ko maiatzaren 14ko erabakiz onartu baitzen. Errekurtso horretan, Kontratuen inguruko Errekurtsoen Foru Auzitegi Administratiboak, gaur egindako bileran eta goian zehaztutako kideak bertan direla, ondorengo erabakia hartu du aho batez.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por el COLEGIO OFICIAL DE DIPLOMADOS EN TRABAJO SOCIAL Y ASISTENTES SOCIALES DE GIPUZKOA contra el pliego de condiciones técnicas para la contratación de la gestión del servicio de intervención psicosocial y de intervención socioeducativa, aprobado por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 14 de mayo de 2019, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

## AURREKARIAK

**LEHENA.-** 2019ko ekainaren 7an Auzitegiaren erregistroan aurkeztutako idatziaren bidez, Gipuzkoako Gizarte Laneko Diplomadunen eta Gizarte Laguntzaileen Elkargo Ofizialak kontratazio arloko errekurtso berezia aurkeztu zuen ebazpen honen sarreran aipatzen den kontratua arautzen duten baldintza teknikoen agirien aurka.

Errekurtsoa jarri duen lanbide elkargoak baldintza teknikoen agiriko VIII. atalaren aurka egin du (Giza baliabideak), uste baitu 1. sortan ("Bideratu" izeneko esku hartze psikosozialeko zerbitzua) familia langileei Gizarte Hezkuntzako diplomatura edo gradua eskatzeak eta 2. sortan ("Trebatu"

## ANTECEDENTES DE HECHO

**PRIMERO.-** Mediante escrito presentado en el registro de este Tribunal el día 7 de junio de 2019, el Colegio Oficial de Diplomados en Trabajo Social y Asistentes Sociales de Gipuzkoa interpuso recurso especial en materia de contratación contra el pliego de condiciones técnicas que rige el contrato citado en el encabezamiento de esta resolución.

El colegio profesional recurrente impugna el apartado VIII.-Medios Humanos del pliego de condiciones técnicas, por considerar que la exigencia de la diplomatura o grado en Educación Social a los trabajadores familiares en el lote 1 (servicio de intervención psicosocial denominado

izeneko gizarte-hezkuntza arloko esku hartze zerbitzua) familia erreferenteei Gizarte Hezkuntzako diplomatura edo gradua edo Psikologiako lizentziatura edo gradua eskatzeak, kanpoan uzten dituela, inolako arrazoirik eman gabe, gizarte langileak.

“Bideratu”) y de la diplomatura o grado en Educación Social o la licenciatura o grado en Psicología a los referentes familiares en el lote 2 (servicio de intervención socioeducativa denominado “Trebatu”), excluye, de forma injustificada, a los Trabajadores Sociales.

**BIGARRENA.-** Ekainaren 11n, Auzitegiak Gizarte Politiketako Departamentura bidali zuen errekurtsoa, eta 9/2017 Legeak, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuenak, 56.2 artikuluan xadatutakoari jarraikiz, kontratazio espedientea eta dagokion txostena eskatu zituen.

**SEGUNDO.-** En fecha 11 de junio el Tribunal remitió el recurso al Departamento de Políticas Sociales y le solicitó, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 56.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP), el expediente de contratación y el correspondiente informe.

**HIRUGARRENA.-** Irailaren 20an, Auzitegiaren erregistroan sarrera eman zitzaien kontratazio espedienteari eta departamentuaren txostenari, zeinean egokitzat jotzen baita agiri teknikoa aldatzea, Gizarte Laneko gradua edo diplomatura izan dadin 1. sortako familia langilearen eta 2. sortako familia erreferentearen lanbide profiletan lan egiteko gaitzen duten titulazioetako bat.

**TERCERO**.- El 20 de septiembre tuvieron entrada en el registro del Tribunal el expediente de contratación y el informe del departamento, en el que se considera adecuado proceder a la modificación del pliego técnico para incluir el grado o diplomatura en Trabajo Social como una de las titulaciones que habilitan para trabajar en los perfiles profesionales de trabajador familiar del lote 1 y referente familiar del lote 2.

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

### Errekurtsoaren onargarritasuna

### Admisibilidad del recurso

**LEHENA.-** Errekurtso berezi hau aurkezten da Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 44.1.a) artikuluan aurreikusitako zerbitzu kontratu baten baldintza agirien aurka. Kontratu horren balio zenbatetsia 10.640.923,85 euro da.

**PRIMERO.-** El presente recurso especial se interpone contra los pliegos de un contrato de servicios de los contemplados en el artículo 44.1.a) LCSP, cuyo valor estimado asciende a 10.640.923,85 euros.

Beraz, kontratazio alorreko errekurtso berezia jar daiteke errekurritutako egintzaren aurka, hala xedatzen baita Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 44.2.a) artikuluan eta Auzitegi honi dagokio errekurtsoaren berri izateko eskumena, hain zuzen ere Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzeko irailaren 28ko 24/2010 Foru Dekretuko 2.1 artikuluak emandakoa.

Por lo tanto, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo el artículo 44.2.a) LCSP, y la competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

**BIGARRENA.-** Errekurtsoa jarri duen Elkargo Profesionalak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 48. artikuluan eskatzen den legitimazioa dauka errekurtso hau jartzeko, berezko nortasun juridikoa eta bere xedeak betetzeko gaitasun osoa daukan Zuzenbide Publikoko Korporazioa baita eta otsailaren 13ko Elkargo Profesionalei buruzko 2/1974 Legearen 5.g) artikuluak berariaz esleitzen baitio bere lurralde-esparruan lanbidearen ordezkaritza eta defentsa burutzeko eginkizuna Administrazioaren eta Auzitegien aurrean, auzietan alderdi izateko legitimazioarekin, betiere auziak interes profesionalei eragiten badie.

**SEGUNDO.-** Concurre en el colegio profesional recurrente la legitimación exigida en el artículo 48 LCSP para interponer el presente recurso, pues se trata de una Corporación de Derecho Público con personalidad jurídica propia y plena capacidad para el cumplimiento de sus fines, a la que el artículo 5.g) de la Ley 2/1974, de 13 de febrero, sobre Colegios Profesionales, atribuye expresamente la función de ostentar en su ámbito territorial la representación y defensa de la profesión ante la Administración y los Tribunales, con legitimación para ser parte en cuantos litigios afecten a los intereses profesionales.

**HIRUGARRENA.-** Errekurtsoa hamabost laneguneko epean aurkeztu da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 50.1.b) artikuluak aurreikusten duen bezala, kontuan hartzen bada lizitazio iragarkia eta pleguak 2019ko maiatzaren 27an argitaratu zirela Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman dagoen Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontratatzailearen profilean.

**TERCERO**.- El recurso se ha interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.b) LCSP, si se tiene en cuenta que el anuncio de licitación y los pliegos se publicaron en el perfil de contratante de la Diputación Foral de Gipuzkoa, alojado en la Plataforma de Contratación Pública de Euskadi, el día 27 de mayo de 2019.

**Auziaren mamia**

**Fondo del asunto**

**LAUGARRENA.-** Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontratatzailearen profilean uztailaren 16an argitaratutako uztailaren 12ko 570/2019 Foru Aginduaren bidez, Gizarte Politiketako Departamentuko foru diputatuak huts deklaratu zuen kontratazio prozedura hau, ez zelako eskaintzarik aurkeztu.

**CUARTO**.- Por Orden Foral 570/2019 de 12 de julio, publicada en el perfil de contratante de la Diputación Foral de Gipuzkoa el día 16 de julio, la Diputada Foral del Departamento de Políticas Sociales declaró desierto el presente procedimiento de contratación por falta de presentación de ofertas.

Horrek berekin dakar errekurtso honen xedea gertatzez desagertzea eta, beraz, amaitzea, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 84.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ello supone la desaparición sobrevenida del objeto del presente recurso y, por tanto, su terminación, de acuerdo con lo dispuesto por el artículo 84.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Gaineratu behar da, halaber, Diputatuen Kontseiluak 2019ko abenduaren 17an hartutako Erabakiaren bidez onartu zela esku hartze psikosozialeko zerbitzua (Bideratu) eta gizarte-hezkuntza arloko esku hartze zerbitzua (Trebatu)

Cabe añadir que por Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral adoptado el día 17 de diciembre de 2019 se aprobó el nuevo expediente de contratación del servicio de intervención psicosocial (Bideratu) y de intervención

kontratatzeko espediente berria, eta 2020ko urtarrilaren 2an argitaratu zela kontratatzailearen profilean.

socioeducativa (Trebatu), que fue publicado en el perfil de contratante el día 2 de enero de 2020.

Departamentu kontratatzaileak bere txostenean iragarri zuen bezala, kontratazio espediente berriaren baldintza teknikoen agiriak, VIII. atalean (Giza baliabideak) onartzen du Gizarte Laneko diplomatura edo gradua, 1. sortako familia langilearen eta 2. sortako familia erreferentearen lanbide profiletan lan egiteko gaitzen duten titulazioetako bat bezala.

Como ya anunció el Departamento contratante en su informe, el pliego de condiciones técnicas del nuevo expediente de contratación admite en su apartado VIII.-Medios Humanos la diplomatura o grado en Trabajo Social como una de las titulaciones que habilitan para trabajar en los perfiles profesionales de trabajador familiar del lote 1 y referente familiar del lote 2.

Ondorioz, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

En su virtud, este Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

**ERABAKITZEN DU**

**ACUERDA**

Amaitutzat jotzea GIPUZKOAKO GIZARTE LANEKO DIPLOMADUNEN ETA GIZARTE LAGUNTZAILEEN ELKARGO OFIZIALAK kontratazioaren arloan jarritako errekurtso berezia, haren xedea gertatzez desagertu delako.

Declarar terminado, por desaparición sobrevenida de su objeto, el recurso especial en materia de contratación interpuesto por el COLEGIO OFICIAL DE DIPLOMADOS EN TRABAJO SOCIAL Y ASISTENTES SOCIALES DE GIPUZKOA.

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

**Donostia, 2020ko otsailaren 26a / San Sebastián, 26 de febrero de 2020.**